

3. MAILA

Azterketa idatzia

A EREDUA

Deiturak: _____

Izena: _____ NA: _____

Azterketa idatziak lau zati izango ditu

- Entzumena
- Idazmena
- Gramatika eta lexikoa
- Irakurmena

Azterketa idatzia etenik gabe egingo da. Entzumenarekin hasi eta beste hiru zatiak, idazmena, gramatika eta lexikoa, eta irakurmena ondoren.

Entzumena amaitu ondoren **2 ordu eta 30 minutu** izango dituzu idazmenaren, gramatika eta lexikoaren, eta irakurmenaren ariketak egiteko.

	ARIKETA	Puntuazioa gutxienez	Puntuazioa gehienez	Proposaturiko denbora
Azterketa idatzia	Idazmena	15	30 puntu	1h 15min inguru
	Gramatika eta lexikoa	5	10 puntu	25 min inguru
	Irakurmena	5	10 puntu	45 min inguru
	Guztira	28	50 puntu	
	Entzumena	10	20 puntu	25 min inguru

ENTZUMENA

Ondoren, Euskadi Irratiak **Jon Maia bertsolariari** egindako elkarrizketa entzungo duzue. Elkarrizketa **behin** bakarrik entzungo duzue eta bi ataletan banatuta dago.

Orain, 3 minutu dituzue **lehen atalari** dagozkion galderak eta erantzunak irakurtzeko.

LEHEN ATALA

1.- Zertzat du edo nola definitzen du Jon Maiak bere burua?

- a) Soilik gauza ezagunak egitea gustatzen zaion artistatzat.
- b) Egia esan, oraindik ere ez daki zer den, ezta zer izan nahi lukeen ere.
- c) Handitan izan nahi duenak harritu egiten duen tipo bat.
- d) Zertan ari den beti dakien bertsolari bat, den modukoa izatea gustatzen zaiona.

2.- Bertsolaritza dela-eta, zer dio Jon Maiak?

- a) Jolasa, afizioa eta azkenik bizimodua izan dela beretzat bizitzaren bi herenetan.
- b) Hogeita hamabost urtean bidelagun fidela izan duela bertsolaritza.
- c) Batzuetan alboratu behar izan duen jarduera izan dela bertsolaritza.
- d) Hamar urterekin deskubritu zuen jolasa dela, berehala bizimodu bihurtu zitzaiona.

3.- Nola iritsi zen mundu horretara?

- a) Zumaiako bertso-eskolan zaletu zen bertsolaritzaz, Juanito Dorronsorori esker.
- b) Bertso-eskolei esker, Urretxukotik ekarritako zaletasunari bide eman ahal izan ziolako Zumaiakoan.
- c) Plazako bertsolariek zaletu zuten, bertsolari klasikoak eskolako kontua ziren bitartean.
- d) Eskola-orduetan atsegina zuen ikasgaia zelako bertsolaritza.

4.- Zer-nolako bertsolaria da Jon Maia?

- a) Bertsoak estrategikoki prestatzen dituen bertsolaria, emozioz eta sentipenez bada ere.
- b) Bertsoak teknikoki lantzen dituen bertsolaria da, berezko bertsokera baitu hori.
- c) Unean uneko gaiari komeni dakiokkeen trataerari erreparatzen ez diona.
- d) Bertsoetan sentipenak ezkututzen dituena, arrazionala delako izatez.

5.- Txapelketak direla-eta, ...

- a) bere onenak emanda dituela esan diote hainbatek, askotan gehiago merezi izan badu ere.
- b) uste du lan handia eskatzen dutela, epaimahaikoei begira kantatu behar delako.
- c) lan gehiago egin behar izan du, esaterako, igaro berri den Gipuzkoako txapelketan.
- d) errazagoa zaio jendearengana heltzea, epaimahaikoengana baino.

Aukeratu galdera bakoitzaren erantzuna eta idatzi dagokion letra ondoko laukietan:

1-	2-	3-	4-	5-
----	----	----	----	----

ENTZUMENA

Lehenengo atala amaitu da. Ondoren, 3 minutu dituzue **bigarren atalari** dagozkion galderak eta erantzunak irakurtzeko.

BIGARREN ATALA

6.- Letragilea ere bada, eta ...

- a) jada hemezortzi urte daramatza letrak idazten hainbat euskal kantarientzat.
- b) gustatu egiten zaio idazten duena kantatzea ere.
- c) Fermin Muguruzak eskatutako ehun abestiri baino gehiagori jarri die letra dagoeneko.
- d) miresten dituen abeslariekin lan egiteko aukera paregabea etorri zaio letrak egitetik.

7.- Zer dio Benito Lertxundi buruz?

- a) Itsasoari begira esan ziola Benitori zein umemokoa sentitzen zen haren ondoan.
- b) Berak idatzitako zerbait Benitok kantatzeak hunkitu egiten duela.
- c) Imajinaezina dela beretzat noizbait zerbait idaztea Benito Lertxundirentzat.
- d) Letra bat idazteagatik bizitzan egin dioten opari politenetakoa egin diola Benitok.

8.- "Riomundo" bere liburua ...

- a) kanpotik Euskal Herrira etorritako familia baten kronika da, hainbat euskaldunen familien isla izan daitekeena.
- b) koreanoek eta belarrimotzek ekarritako arriskuaz konturarazteko idatzi du, asko eta asko haien seme-alabak baitira egun.
- c) banan-banan saltzen denez, bi urtean 7.000 ale inguru baino ez dira saldu.
- d) nork bere lurra zenbat maite duen eta ez lukeela abandonatu behar zabaltzeko idatzi du.

9.- Jon Maiaren ustez, ...

- a) lehenengo etorkinek ez dute oraingoek adinako meriturik, haiek bertatik zetozelako eta hauek, berriz, Kolonbiatik edo auskalo nondik.
- b) orain 60-70 urte ere, kanpotik hona etorrita, arrotza zitzairen mundu batean erraz sustraitzen ziren.
- c) diktadurapeko Euskal Herrira emigratzeak mundu arrotz bat ekartzea suposatu zuen euskaldunentzat.
- d) bere familiakoak bezalakoei ez zitzairen integrazteko aukera handirik eskaini.

10.- Inmigrazioa dela-eta, ...

- a) gaur egun dauden integrazio-estrategiak egoki samarrak direla uste du Jonek.
- b) euskaldunok etorkinen integrazioa behar dugu, baita hizkuntza aldetik ere, gutxiengoa baikara.
- c) etorkinek berek, herriz herri, planifikatu beharko luketela beren etorrera.
- d) larria deritzo kanpotik datozenek euren umeak D ereduan matrikulatu behar izateari.

Aukeratu galdera bakoitzaren erantzuna eta idatzi dagokion letra ondoko laukietan:

6-	7-	8-	9-	10-
----	----	----	----	-----

HADE

IDAZMENA

Egitekoa

Jarraian, artikulua bat idazteko proposatzen zaizkizun bi gaietako **bat** aukeratu behar duzu (kontuan hartu zer eskatzen den).

Oharrak:

- Garbi idatzi eta saiatu letra argia egiten.
- Gogoratu gutxieneko hitz kopurua bete behar duzula. **Gutxienez, 300 hitz idatzi behar dituzu.**
- Idazlana zuzentzean arlo hauek hartuko dira kontuan:
 - eskatutakoari erantzun diozun testu egokia osatu duzun
 - euskara egokia, zuzena eta aberatsa erabili duzun
- Idazteko boligrafoa erabili (zirriborroetarako arkatza erabil dezakezu).

**Zirriborroetarako orria
(orri hau ez da zuzenduko)**

1. gaia

GOBERNUZ KANPOKO ERAKUNDEAK SUSMOPEAN?

Azkenaldi honetan Gobernuz Kanpoko Erakundeen (GKE) hainbat ustelkeria-kasu azaldu dira.


Azkenaldi honetan Gobernuz Kanpoko Erakundeen (GKE) irudi ona zikindu duten hainbat ustelkeria-kasuren berri eman dute hedabideek: dela GKE bateko buruak erakundearen dirua bere kontu pribatuetara bideratu duela, dela horrelako beste erakunde batek haurren badaezpadako adopzio-prozesuak kudeatu dituela...

Albiste horiek kontuan hartuta, herriko aldizkarirako **artikulu** bat idatzi behar duzu.
Eman zure iritzia

Gutxienez, **300 hitz** idatzi behar dituzu.

Albiste horiei buruz iritzia emateko eta gaia garatzeko, ondoko puntu hauek ere erabil ditzakezu:

- ✚ Herritarren ekimenez sortzen dira, komunitatearen onerako jarduteko eta irabazi asmorik gabe.
- ✚ Batzuek oinarri erlijiosoa dute (*Caritas, Manos Unidas...*); beste batzuk, berriz, laikoak dira (*Gurutze Gorria, Medicus Mundi, Greenpeace, Anesvad ...*).
- ✚ Diru-iturriak: bazkideen kuotak, herritarren diru-ekarpenak (kanpainak) eta erakunde publikoak zein pribatuak.
- ✚ Lan-esparrua: osasun-laguntza, ekologia, Hirugarren Mundua, adimen urrikoei laguntzea...
- ✚ Kideak: boluntarioak eta langileak.



2. gaia

“Helduen erdiek baino gehiagok estresa jasaten dute edo jasan dute”

Goiko titularra duen berri laburra irakurri duzu herriko aldizkarian. Kopurua hain handia izateak zer prentsatua eman dizu: zerk eragiten digu estresa (lanak, osasun arazoek, bikote-harremanak...)? Herrialde garatuetakoa gaitza da bakarrik? Zer ondorio ekar diezaguke? Zer egin dezakegu estresari aurre egiteko? Estresa kaltegarria al da beti?

Goiburu hori hartuta, euskaltegiko aldizkarirako **artikulu** bat idatzi behar duzu. Eman zure iritzia.

Gutxienez, **300 hitz** idatzi behar dituzu.

Irakurri duzun albisteari buruz iritzia emateko eta gaia garatzeko, ondoko puntu hauek ere erabil ditzakezu:

- Estresa fenomeno fisiologiko normala da, mehatxu gisa hautematen dituen estimuluaren aurrean organismoak ematen duen erantzuna.
- Estres ona positiboa da: egoera zailak jasaten eta ingurunearen eskaeren aurrean erreakzionatzen laguntzen du.
- Estresak, ondorio psikologikoez gain, fisikoak ere sortzen ditu.
- Estresari aurre egiteko tresnak: botikak, erlaxatzea, masajeak, hidroterapia, musika-terapia...
- Prebentziorako aholkuak: behar adina lo egin, ariketa fisikoa egin, elikadura zaindu, denbora ongi antolatu, monotonia hautsi...



HADE

Ilunberri aldizkaria

Asteko gaia

GRAMATIKA ETA LEXIKOA

1. ESALDIAK BERRIDATZI

Egitekoa.

Ariketa honetan ematen zaizkizun esaldiak beste era batera adierazi behar dituzu. Horretarako, azpiko esaldia osatu behar duzu, goiko esaldiko hitzak ahalik eta gutxien aldatuta. Inoiz bat kendu edo beste bat sartu beharko da, baina beti ere esaldi bakar bat osatuz, eta ortografia zuzenarekin.

Behean agertzen den esaldi zatitxoak aurretik edo atzetik eten-puntuak baldin baditu, zerbait idatzi behar da horri lotuta. Adibidez:

...takoan → etorri takoan

Eten-punturik ez badu, aparteko hitza da.

Adibidez:

0. Hasieran errua berari egotzi nion. Horrek lotsa eman zidan gero.

Hasieran bera erruduntzat jo izanak lotsatu egin ninduen gero.

1. Politikarien hitz antzuak bezain gogaikarriak iruditzen zaizkit zenbait herritarren kexa amaigabeak.

_____ **gogaitzen** _____

2. Orduak ematen zituen Jonek imintzioka ispi luaren aurrean. Horrela aktore izatera iritsiko zela uste zuen.

_____ **bihurtuko** _____ **...koan.**

3. Bi urte barru herrian babes ofizialeko etxebizitzak egingo dituzte. Alkatearen emaztearen bitartez jakin dut.

_____ **esanda** _____ **hemendik** _____

4. Nahi nuke, ba, Aste Santuan eguraldi ona egitea!

_____ **ahal** _____ !

5. Gabonetan iloba bakoitzari berrogei euro eman nizkion, diru horrekin nahi zutena erosteko.

Gabonetan ilobei _____ **...na** _____
_____ **eros** _____.

6. "Loteria egokituz gero, lan egiteari utziko ote nioke?" Galdera hori dut gogoan.

_____ **ba...** _____
_____ **galdetzen** _____.

7. Gure proposamenari gaizki baderitzote, beste inori baino lehen geuri jakinaraztea daukate!

_____ **bat** _____
_____ **jakinaraz** _____ !

HADE

8. "Hemen zaudetenetik nork salatuko nau?" Galdegin zien hizlariak.

Hizlariak _____
_____...n_____.

9. Munduko lekurik ederrenean bizi izanda ere, gutxi dira hori aitortzen dutenak.

Denik eta _____ arren,
_____.

10. Horrelakoak ez dira gurasoek aginduta egiten, norberak nahita egiten dira.

_____...lako, _____
_____ nahi _____ baizik.

2. BALIOKIDEA AUKERATU

Egitekoa.

Testuinguruan duten esanahia kontuan harturik, markatuta dauden hitz horien **baliokidea** aukeratu behar duzu. Idatzi bakoitzari dagokion **letra** beheko laukietan.

Transmisioa

Askotan imajinatu dut Azkue apaizkotea zahar etxez zahar etxe, kantak eta ipuinak eta **esaerak (1)** biltzen. **Halaber (2)**, imajinatu ditut zahar etxeetako aitona-amona **erkinduak(3)** ere sotanaz jantzitako gizon **kankailu (4)** hari gogoratzen zutena kontatzen eta kantatzen. Eszena **kitzikagarria (5)** da, enkontru haiei esker goza dezakegu gaur daukagun ahozko altxorrik preziatuena. Baina altxorragoa eta preziatuagoa izan zitekeen, baldin Azkuek sotanarik eraman izan ez balu. **Alegia (6)**: apaiz hark ordezkatzan zuen sistemak Jainkoaren (eta sexuaren) beldurrean hezi zituen aitona-amona haiek nola **zeru (7)** kontatuko zizkieten ba gizon sotanadun kankailu hari logeletan, **ganbaretan (8)**, arta-zuriketetan, neska-laguntzan xuxurlatzen, **intsinuatzen (9)**, erdi kantatzen zituztenak? Eta kontaktu izan balizkiote ere, Azkuek **jasoko (10)** ote zituen, emango ote zizkigun... Eten puntuak iritsi ez zaigunaren nostalgiak jarriak dira.

Anjel Lertxundi: Berría, 2007ko azaroaren 9a.

	A	B	C	D
1	Esamesak	Alegiak	Esakuneak	Aginduak
2	Ordea	Alabaina	Hala moduz	Era berean
3	Indargeak	Mizkinak	Petralak	Banatuak
4	Ero	Handikote	Kontakatilu	Mehar
5	Higuingarria	Gogaikarria	Ernagarria	Aspergarria
6	Berriz	Aitzitik	Osterantzean	Hots
7	Arraio	Ortzi	Omen	Alafede
8	Mandioetan	Sukaldeetan	Ukuiluetan	Ezkaratzetan
9	Ferekatzen	Hunkitzen	Iradoitzen	Hausnartzen
10	Aldenduko	Pilatuko	Igorriko	Batuko

1-	2-	3-	4-	5-	6-	7-	8-	9-	10-
----	----	----	----	----	----	----	----	----	-----

IRAKURMENA

Egitekoa

Irakurri testuak eta galderei erantzun. Testuan esaten dena kontuan izan, eta aukeratu erantzun zuzena.

Idatzi **letra** beheko laukietan.

1. Testua

Pio Baroja idazlea eta Santa Kruz apaiza

Pio Barojaren lan ezagunenak nobelak badira, genero horretatik aparte ere asko idatzi zuen. Esate baterako, gerra kronika ugari utzi zituen idatzita: munduko bi gerrateak, Espainiako Gerra Zibila... aintzat hartu eta orri asko bete zituen, kronika gisa hartuta. Nahiko gazte hasi zen gerra kronistaren lanak egiten, hogeita hamar bat urte zituenean, Madrileko *El Globo* egunkariak Afrikara bidali zuenean, 1902. urtean, Marokoko gerraren berri eman zezan. Horrela, Pio Baroja Tangerang hirira joan zen eta handik bidali zituen bere eguneroko kronikak.

Badu, ordea, gerra bati buruz idatzitakoa berezi samarra dena. Alde batetik, gerra hori aspaldi samar amaitua zelako eta, beraz, Barojak zuzenetik ezagutu gabe egin behar izan zituelako kronika horiek. Eta bestetik, egindako lan hori ez zitzaiolako batere gustatu gerra hartan protagonismo nagusia izan zuen pertsonaiari, artean (Barojak testu bilduma publikatu zuenean) bizirik baitzegoen. Pertsonaia garrantzizko hori Santa Kruz apaiza da eta aipaturiko gerra hori, jakina, Hirugarren Karlistada. Eta Barojak ezin zuen ezagutu zuzenetik gerra karlista hori hain juxtu amaitzeaz zegoelako bera jaio zen urtean. Jakina denez, Pio Baroja Donostian jaio zen 1872. urtean eta esan daiteke Hirugarren eta azken Karlistada hurrengo urtean, hots, 1873an eman zutela amaitutzat. Orduan, Barojak urtebete besterik ez zeukan; ezin, beraz, gertutik kontatu gertatzen ari zena. Eta halaz ere, ia berrogeita hamar bat urte geroago, Pio Baroja ausartu egin zen Santa Kruz apaizaren kontra liburu gogor bat idaztera, garai hartan gertatu zirenak gertutik ezagutzeko aukerarik izan gabe eta, gainera, apaiza artean bizirik zegoela (nahiz eta oso urruti bizi izan, Hego Amerikako Kolonbian).

Pio Barojak idatzitako liburua *El cura Santa Cruz y su partida* deitzen da eta 1918an kaleratu zen. Apaiz karlistaren aldekoak berehalaxe atera ziren esanez libelo nazkagarri bat zela testu hura, goitik beheraino gezurrez eta gehiegikeriaz josia zegoena, kontradikzio eta faltsukeriaz betea. Santa Kruz apaizak, hemengo dena alde batera utzi eta Ameriketarako bidea aukeratu zuenean misiolari izateko, esana zien bere lagun eta jarraitzaileei inoiz ez erantzuteko ezer, bere alde ez ateratzeko, etsaiek kontra asmazio eta gezurrik handien eta biribilenak botatzen bazituzten ere. Halaz ere, badakigu Santa Kruz apaizak izandako erreakzioa Pio Barojaren liburua irakurri zuenean. Bai baitakigu irakurri egin zuela eta hantxe bertan, Ameriketean, testu luze bat idatzi zuela puntuz puntu, hitzez hitz errefusatuz Pio Barojak bere kontra esandako guztia. *Réplica contra Pío Baroja por Manuel Santa Cruz* da apaizak idatzitako testuaren izenburua.

Pio Barojak, liburuaren halako pasarte batean, dio Santa Kruz apaizaren soldadu jarraitzaileetatik batzuk gizon zintzoak zirela, baina beste asko "bidelapur hutsak". Pasarte hau irakurtzean biziki haserretu eta sutu zen apaiza: "Nire mutiletatik batzuk bidelapurak direla? Hori iraina da -idatzi zuen Santa Kruzek-. Munduko onenak ziren nire soldaduak. Hainbestearaino non inoiz ez nituen zigortu behar izan, ez badira behin mozkortu zena eta neskamearekin gaizki portatu zen beste hura. Beste inoiz ez nuen nik inor zigortu, horretarako motiborik eman ez zidatelako".

Pio Barojaren familiak ezagutzen zuen Egozkue *El Jabonero* deitzen zen soldadua, Santa Kruz apaizarekin ibilitakoa. Pio Barojak, apaizaren krudelkeria erakusteko, esaten du Egozkue azkarra eta ausarta zela, beti aurrean ibiltzen zena, eta jarraitzaileak zituela; horregatik, apaizak fusilatu egin omen zuen. Honekin ere izugarri haserretzen da Santa Kruz, gezurti hutsa dela esaten dio idazleari eta berdin-berdin zaiola gauza bat edo beste esan, nahiz eta kontraesanean jausi. Esplikatzen dio segidan zergatik fusilarazi zuen Egozkue, traizio egiteagatik, eta nola honek azkenean, hil baino lehen, bere errua onartu zuen eta barkamena eskatu zion.

Pio Baroja idazlea eta Santa Kruz apaiza

- 1) **Zer esaten da testuan Pio Barojak idatzitako gerra kronikei buruz?**
 - a. Berak, lekuko gisa, bizi izandako gerrei buruzkoak direla kronika guztiak.
 - b. Madrileko *El globo* egunkariaren bitartez jasotzen zuela kronikak idazteko behar zuen informazioa, han egiten baitzuen lan.
 - c. Guda non, hara abiatzen zela kronika idaztera.
 - d. *El cura Santa Cruz y su partida* liburua salbu, bere garaiko gerra-gertakariez osatutako lanak direla.

- 2) **Barojak Hirugarren Karlistadaz idatzitako gerra kronikak...**
 - a. 1873tik 1918ra bitarteko gerra-gertakarien bilduma dira.
 - b. Hirugarren Karlistada bukatu eta urtebetera idatziak dira.
 - c. Ameriketara irakurri zituen Santa Kruz apaizak.
 - d. idatzi eta handik berrogeita hamar bat urtera liburu batean argitaratu ziren, 1918. urtean hain zuzen.

- 3) **Zer erreakzio izan zuen Santa Kruz apaizak Barojak beraren aurka idatzitakoaren berri izan zuenean?**
 - a. Liburua irakurritakoan, Barojak bere aurka jaurtitako faltsukeriei ez erantzuteko agindu zien bere jarraitzaileei.
 - b. Banan-banan erantzun zien Barojak bere kontra idatzitako salaketei.
 - c. Berarekin gerran ibilitako soldaduei goratarrea idatzi zien.
 - d. Barojaren kronika-bilduma hura libelo nazkagarria zela esan zuen, bere soldaduak bidelapurak zirela idatzi baitzuen idazle donostiarrek.

- 4) **Zer idatzi zuen Santa Kruz apaizak Egozkue *El Jabonero*-ri buruz?**
 - a. Apaizak barkamena eskatu ziola hura fusilatzeke agindua eman behar izateagatik.
 - b. Ez zuela leial jokatu bere armakideekin.
 - c. Noiz edo noiz mozkortuta ibiltzen zela eta neskamearekin gaizki portatzen zela.
 - d. Gezur handiak esan zituela bere soldaduei buruz.

- 5) **Kontuan hartuz Karlistadetan *liberalak* eta *karlistak* elkarren etsai izan zirela, horietako norengandik ikusten duzu Baroja pentsaeraz hurbilago?**
 - a. Haren gerra kronikak irakurrita, argi dago Baroja erdibidean koka dezakegula, ez batzuen ez besteen alde.
 - b. Haren familiaren ezagun bat Santa Kruz apaizaren jarraitzailea izanik, Baroja ere liberala izango zen, ziur aski.
 - c. *El cura Santa Cruz y su partida* liburuan idatzitakoak bide ematen digu pentsatzeko karlisten aldekoa, behintzat, ez zela izango.
 - d. Santa Kruz apaizarekiko azaltzen duen interesak argi uzten du Baroja karlista sutsua izan zela.

1-	2-	3-	4-	5-
----	----	----	----	----

IRAKURMENA

2. Testua

'Laika'

Laika, sobietarrek gaur mende erdi espaziora bidalitako txakurra, kalean errekrutatu zuten. Ez zuen jaberik, kale zuloa zuen etxe, eta urruneko zeruan hil zen. Erromako bazter auzoetan bizi diren errumaniarren txabolak ikusi ditudanean gogoratu zait. Txabola horietako batean bizi omen zen batek, kazetariak esan du, lapurreta egiten hasita, emakumea bortxatu eta hil du. Ustez. Eta Italia osoa sutan dago. Baina ez Castellon bere buruari su eman zion errumaniar hura bezala. Italian sortutako suak besteren bizitzak erretzen dituelako, ez propioa, lehen ministroak berehalakoan sinatu duen dekretu xenofobo batek hauspotuta. Milaka europar «arriskutsu» egotziko omen dituzte berehala. Milaka errumaniar, erran -erre- nahi baita. Europarrak izan bai baina errumaniarrak gu europarron parekoak ez direlako. Eta hasi da errumaniar pasea. Ez dago jada Berlusconi errua botatzerik. Ezker usteko gobernuak abiarazi duelako ehiza, tokian tokiko agintariei -poliziei eta gobernu ordezkari- eman dielako *arriskutsuak* nortzuk diren nahi erara erabakitze eskumena. Erroman, Florentzian, Milanen eta Turinen, polizia etxetan migrante *doilorren* zerrendak osatuta omen dauzkate. Espazio urrunera bidali beharreko milaka *Laika*-ren izenekin.

Amagoia Iban. Berria, 2007-11

3. Testua

Kontzientzia tragikoa

Kontzientzia, ekintzak epaitzeko eta aukeratzeko gizakiak duen ahalmena, zalantzazkoa, zaila, tragikoa da beti. Kontzientziak argitzen du ekintzaren ingurunea, egin zitekeenaren eta egin denaren arteko aldea, eta ezin denaren eta egin daitekeenaren artekoa. Kontzientzia ekintzaren ondorioa da, baina ekintzaren arrazoia eta ekintzaren eragilea ere bai.

Epikan, gizakiak erabateko onaren eta txarraren artean aukeratu du, bi aldeok zeharo berezirik daude eta onak txarra bantutzean soluzionatuko da arazoa. Tragedian, ostera, on desberdinen artean aukeratu behar da, onak txarrekin nahastuta etorriko dira, aukeratu beharra ere mingarria izanen da, sakrifizioak ezinbestekoak izanen dira eta, soluzioan, irabazleak ere zer edo zer galduko du.

Prometeok, heroe tragikoak, egin behar duenaren kontzientzia du; Prometeo izenak horixe adierazten baitu, Epitemeo anaia inkontzientearen aldean. Baina egin behar denaren kontzientzia izateak ez du esan nahi zer gertatuko den dakienik, arriskuaren kontzientziarekin, hoberenaren bila egindakoaren ondorioak edozelan ere ustegabeak eta lazgarriak izan daitezkeelako.

Hesiodoren aburuz Prometeo zitala eta gaizkile hutsa zen, Zeusen eta munduaren ordenaren kontra ekin zuelako, eta ezarriko zitzaion zigor izugarria ondo merezia zuen. Estatuaren eta bestelako dogmen ezartzaileek halako kriterioekin epaitzen dute, oraindik, edozein errebeldia. Haien ustez, Estatuak onaren eta gaizkiaren monopolioa du eta Estatuak biztanleek ezarri zaien erresuma eta hierarkia ametitu beste erremediorik ez dute. Eskilok, Sofoklesek eta Euripidesek, gizajendearen kontzientzia ahalmena aintzat hartuz, Hesiodok baino hobeto ulertzen zuten beren pertsonaien ondoez eta errebeldia...

Gizakia ez da ezer, izan nahi duena berak egin ezik, eta ekiteko orduan erdi ilunetan aukeratu behar du, bere ekintzen ondorioa ezagutu gabe. Ilusio faltsuek eta gehiegizko ausardiak ezbeharra ugalduko dute, sinesgogortasunek eta soberako gibelbeldurrek makurkeria luzatuko dute.

Ertz bion artean ekiteko aukera hauze da ugaztun bertikalaren askatasun eta erresponzabilitatea.

Joseba Sarrionandia. *Hitzen Ondoeza*

HADE

‘Laika’

6) Zer gertatu da Italian?

- Emakume bat bortxatu eta hil egin dute. Gaizkilea errumaniarra izan delakoan, agintariek inmigrazio politika gogortu dute.
- Errumaniar batek, emakume bat bortxatu eta hil ondoren, su eman dio bere buruari. Handik gutxira, lehen ministroak errumaniarrak Italiatik kanporatuko dituen dekretua sinatu du.
- Kazetari batek salatu du bere auzoan bizi den errumaniar batek emakume bat bortxatu eta hil duela. Berria zabaldu eta berehala, gobernuak etorkin arriskutsuak Italiatik botatzea erabaki du.

7) Artikuluaren izenburua “Laika” da. Zer dela eta?

- Laika* txakurra espaziora bidali zuten egunaren 50. urteurrenean bortxatu eta hil dutelako emakumea.
- Italiatik botako dituzten etorkinen irudia da *Laika*, etxerik gabeko txakur hura ere urrun bidali baitzuten.
- Idazleak artikulua baliatu nahi izan du *Laikaren* balentria gogora ekartzeko.

Kontzientzia tragikoa

8) Prometeo heroi tragikoak...

- ez du ongiaren eta gaizkiaren artean bereizten.
- hobe beharrean jarduten badu ere, badaki azkenean bere asmoek porrot egingo dutena.
- badaki zer egin behar duen; ez, ordea, gauzak uste bezala aterako zaizkion.

9) Zergatik zigortu zuten Prometeo?

- Heroi tragikoaren errebeldiak ezbeharrak baino ez zuelako eragin.
- Prometeok indarrean zegoen sistema burumakur onartzeari uko egin ziolako.
- Herioiak, egiten duena egiten duela, Hesiodoren tragedietan ongia beti gailentzen zaiolako gaizkiari.

10) Zer da kontzientzia tragikoa?

- Norbanakoak egoera baten aurrean zer egin erabakitzeko duen askatasuna, erabaki horrek ekar ditzakeen ondorioez bat ere kezkatu gabe.
- Gizakiak, ondorioak ondorio, unean-unean nola jokatu aukeratzeko duen ahalmena.
- Ezarrita dagoen munduaren ordena aldatzerik ez dagoela jakiteak gizakiari eragiten dion ondoeza.

6-	7-	8-	9-	10-
----	----	----	----	-----

HIRUGARREN MAILAKO AZTERKETA ZATIAK ETA PUNTUAZIOA

HIRUGARREN MAILAKO AZTERKETAREN ZATIAK ETA PUNTUAZIOA:

A zatia 50 (gutxienez 28)	Irakurmena	% 10	Gutxienez 5 puntu	10 puntu	45 min
	Gramatika eta hiztegia	% 10	Gutxienez 5 puntu	10 puntu	25 min
	Idazmena	% 30	Gutxienez 15 puntu	30 puntu	1h 15 min
B zatia 50 (gutxienez 27)	Entzumena	% 20	Gutxienez 10 puntu	20 puntu	25 min
	Mintzamena	% 30	Gutxienez 15 puntu	30 puntu	10 min
GUZTIRA		%100	gutxienez 55	100 puntu	

Agiria eskuratzeko gutxienez 55 puntu beharko dituzu denera eta 28 eta 27 proba bakoitzean. Era berean, ezinbestekoa da bi probetan (idatzian eta ahozkoan) gai izatea. Eraitza bakarra emango da: **GAI/EZ GAI**.

Hauek dira idazmena zuzentzeko irizpideak:

EGITEKOA BETE. Komunikazio-egoera eta diskurtso-elementuak. Erregistroa. Edukia. Hitz kopurua.
KOHERENTZIA ETA KOHESIOA. Ideien eta egituren arteko lotura. Testuaren egituratzea. Paragrafoen antolamendua.
GRAMATIKA ETA HIZTEGIAREN ABERASTASUNA ETA ZUZENTASUNA. Gramatika-egiturak. Lexikoa. Joskera. Ortografia.